

1979 IN 2021



U.P.V. E.H.U.

LAN EGITEKO
PROZEDURA

KIMIKA
ZIENTZIEN
FAKULTATEA
Donostia

ESPERIMENTU LANA
OHIKO ORDUETATIK AT

BERRIKUSPENA 01
Data: Ekaina/2015
orrialdea: 1.a (guztira: 8)

**SEGURTASUN ARAUAK ESPERIMENTU LANAK
OHIKO ORDUETATIK KANPO EGITEKO**

AURKIBIDEA

1. PROZEDURAREN HELBURUA	3
2. PROZEDURAREN EREMUA	3
3. DEFINIZIOAK.....	4
4. PREBENTZIO NEURRIAK	5
5. ARAU HAUSTEAK.....	7
6. SORTUTAKO DOKUMENTUAK ARTXIBATU	7
7. ERANSKINAK	8



**LAN EGITEKO
PROZEDURA**

**KIMIKA
ZIENTZIEN
FAKULTATEA
Donostia**

**ESPERIMENTU LANA
OHIKO ORDUETATIK AT**

**BERRIKUSPENA 01
Data: Ekaina/2015
orrialdea: 3.a (guztira: 8)**

1. PROZEDURAREN HELBURUA

Ikerlana egiterakoan, baliteke produktu arriskutsuez gainera, arrisku potentziala ezagun ez den hainbat substantzia eta prozedura ere erabili beharra izatea. Hori dela eta, esperimentu lanak ohiko orduetatik kanpo egiteak, fakultatean jende gutxi egon eta larrialdi kasuan berehalako laguntza lortzea zaila denean, arrisku faktore gehigarri bat du eta, ondorioz, hobe da horrelako lanak egiteko baldintzak arautzea.

UPV/EHUK hizpide dugun arloan aplikatzeko bi arautegi sortu ditu:

- Prebentzioa Kudeatzeko Sistemako 13. Prozedura: *Ikerketa eta irakaskuntza jardueren prebentzioa.*

- Erabakia, 2015eko ekainaren 1ekoa, UPV/EHUko gerentearena, argitara emateko "prebentzio neurri osagarriak ikastegiak ordutegiz kanpo zabaltzen direnean larrialdiren bat dagoenerako" izeneko prozedura, Prebentzioa Kudeatzeko Sistemako Prozeduren eskuliburuko 5. prozeduraren ("larrialdien kudeaketa" izenekoaren) V. eranskinean jasotakoa.

Prozedura honen helburua da arau orokor hauek osatu eta Donostiako Kimika Zientzien Fakultatean egiten diren lanei aplikatzeko neurri espezifiko batzuk ezartzea. Hala, hartutako neurri horiek ikerlana arriskurik gabe egitea ahalbidetuko dute eta, aldi berean, oinarrizko informazioa jasotzeko aukera ere emango dute larrialdi kasuan esku hartzea errazteko.

2. PROZEDURAREN EREMUA

Prozedura honen mendean egongo dira arrisku kimikoarekin laborategietan, modu batez edo bestez, lan egiten duten pertsonak, hau da, irakasle eta ikertzaileak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, bekadun eta ikasle propioak edo kanpokoak, azpikontratutako langileak eta UPV/EHUtik kanpoko pertsona guztiak.

3. DEFINIZIOAK

Arau hauek ondoko kontzeptuak dituzte gogoan:

***Ikastegiaren ohiko orduetatik kanpoko ordutegia:** Hauek joko dira ohikoaz kanpoko ordutegizat:

- Ostiraleko 20:15etik asteleheneko 8:00etara bitarteko denbora.
- Jaieguna denean, "ohiko orduetatik kanpoko ordutegi"tzat jotzen da aurreko eguneko 20:15etik hurrengo eguneko 8:00etara bitarteko denbora.

***Lanaldia luzatzea:** 20:15etik hurrengo eguneko 8:00etara bitarteko denbora.

***Bakarkako lana:** Bakarkako lantzat jotzen da beste pertsona baten ikusmen edo ahots eremutik kanpo egiten dena, eta *elkarrekiko kontrola* izan gabe.

***Elkarrekiko kontrola:** Honela definituko dugu "elkarrekiko kontrola", bi pertsona edo gehiago fakultatean daudenean, maiztasunez, ikusmen edo ahots bitartez kontaktuan sartzen direnean.

4. PREBENTZIO NEURRIAK

4.1/ Fakultatera sartzea:



LAN EGITEKO
PROZEDURA

KIMIKA
ZIENTZIEN
FAKULTATEA
Donostia

ESPERIMENTU LANA
OHIKO ORDUETATIK AT

BERRIKUSPENA 01
Data: Ekaina/2015
orrialdea: 5.a (guztira: 8)

Ohiko orduetatik kanpo sartu ahalko dira fakultatera dekanotzak eta sailek berriaz baimendutako pertsonak, baldin eta baimendutako pertsonen zerrendan badaude. Zerrenda hori bidaliko zaie campuseko segurtasunaz arduratzen diren langileei.

4.2/ Laborategietako esperimentuak:

Ohiko orduetatik kanpo, fakultateko autobabeserako sistemak ez ditu aktibatuta bere elementu guztiak, hartara, sistema bat dugu prestaturik, larrialdi kasuan esperimentu bat eteteari begira, erabili diren substantzia eta teknikei eta jarraitu beharreko prozedurei buruzko informazioa jasotzeko.

4.2.1- Arau orokorrak

- Ikerketa proiektuetako arriskuen prebentzioa: *Prebentzioa Kudeatzeko Eskuliburuaren 13. prozedurak* jasotzen duenez, proiektuko ikertzaile nagusia izango da proiektuan sortutako lanean prebentzioa bermatzeko arduraduna.

- *Bakarkako lana: Debekatuta dago bakarkako lanean aritzea laborategiko esperimентuetan ikastegia irekita egoten den ohiko orduetatik kanpo.

- Oso arriskutsutzat jotzen diren substantziak: Adi-adi erabili behar dira prebentzio neurri pasiboak (eusteko sistemak, beste ekipo eta produktu batzuk banandu, ...) arrisku maila handiko substantziak erabiltzen direnean (1. eranskina).



LAN EGITEKO
PROZEDURA

KIMIKA
ZIENTZIEN
FAKULTATEA
Donostia

ESPERIMENTU LANA
OHIKO ORDUETATIK AT

BERRIKUSPENA 01
Data: Ekaina/2015
orrialdea: 6.a (guztira: 8)

- Laguntza behar izanez gero, Campuseko Segurtasun Zerbitzura jo behar da:

Tokia	Ordutegia	Telefonoa
UPV/EHU (orokorra)	20:00-8:00 (astelehenetik ostiralera) eta asteburuak	945013434 Luz.: 143434
Gipuzkoako Campusa	Egun osoa	943018430 Luz.: 138430

4.2.2- Esperimentuak ohiko orduetatik kanpo eta lanaldiaren luzapenean egiterakoan

Laborategiko esperimentuak ohiko orduetatik kanpo egiteko hauek beharko dira:

-Tesi edo proiektuaren zuzendariak berariaz emandako idatzizko baimena.

-1. inprimakia (2. eranskina) bete eta fakultatean aurkeztu, ostiral eta jai bezperetan, 13:30ak baino lehen. Esperimentua egun askotan egiten bada, inprimakian adierazi argi eta garbi eta, horrela, ez da berriro bete beharko.

- 1. inprimakiaren kopia bat jarrita egongo da, toki ikusgarri batean, esperimentua egiten ari den laborategiko sarreran.

Esperimentu bat aipatutako baldintzetan egiten denean, "elkarrekiko kontrol" eran lan egin beharko da. Horrek esan nahi du laborategitik kanpo dagoen bigarren pertsonak esperimentu egilearekin egon behar duela harremanetan, sarritan, eta, larrialdi kasuan, esperimentua eteteko behar diren instrukzioak eta informazioa izan behar ditu eskuragarri.

5. ARAU HAUSTEAK

Prozedura honetan jasotako arauetatik baten bat ez dela betetzen ikusiz gero, dekanotzak bertan behera utzi ahalko du fakultatera irekita modu ofizialean egon ohi den orduetatik kanpo sartzeko baimena.

6. SORTUTAKO DOKUMENTUAK ARTXIBATU

Prozedura hau aplikatzearen ondorioz sortutako dokumentazioa, gutxienez, urtebeteko epean gordeko da, eta era honetara artxibatuko da:

-Ohiko orduetatik kanpo sartzeko baimena: Sailean gordeko da, eta horren kopia egongo da ikastegiko administrazioan.

-Esperimentuak egiteko baimena: Sailean gordeko da, eta horren kopia bat egongo da dekanotzan.

-1. inprimakia: Eraikineko sarreran egongo da, larrialdi zerbitzuek erabili ahal izateko. Esperimentua egiteko epea bukatutakoan, dekanotzan gordeko da.

7. ERANSKINAK

1. eranskina: Arrisku maila handiko substantzien taula.
2. eranskina: 1. inprimakia: "Ohiko orduetatik kanpo egindako esperimientua".

1. ERANSKINA


Arrisku maila handiko substantzien taula.

Substantzia mota	Arrisku kodeak
Leherkorra	R3, R4 o R5 H200, H201 o H202
Gas sukoia	H220 o H260
Likido sukoia	R11, R12 o R17 H224 y H225
Solido sukoiak	H228
Substantzia auotoerreaktiboak eta peroxido organikoak	R19 H240 y H241
Substantzia piroforikoak eta berezko berokuntzarekin	R14, R15, R17 o R18 H250 y H251
Toxikotasun akutua	R26, R27 o R28 H304, H310 y H330

2. ERANSKINA

2. solairua
1. solairua
Solairu nagusia
Erdisotoa

**OHIKO
ORDUETATIK
KANPO
EGINDAKO
ESPERIMENTUA
1. inprimakia**



Adierazi non dagoen esperimentua egiten ari den laborategia

DATA:	
HASTEKO AURREIKUSITAKO ORDUA:	
AMAITZEKO AURREIKUSITAKO ORDUA:	

ERABILITAKO PRODUKTU KIMIKOAK

Izena	CAS zk.	Esaldiak H/R	Esaldiak P/S

ESPERIMENTUAREN DESKRIBAPEN LABURRA:

ESPERIMENTUAREN KROKISA EDO ARGAZKIA

ESPERIMENTUA ETETEA LARRIALDI EGOERAGATIK